

## NOTA DE PRENSA

## GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

## Hiru eguneko dolu ofiziala deklaratu da Nafarroan Santiagoko tren-istripuaren biktimengatik

*Foru Komunitateko bandera haga erdian jarriko da eraikin publiko guztietañ*

Viernes, 26 de julio de 2013

Nafarroako Gobernuko Lehendakari Yolanda Barcina Angulok [forudekretu](#) bat sinatu du eta, haren bidez, hiru eguneko dolu ofiziala deklaratzen da Foru Komunitatean, ostiral honetako 00:00etatik hilaren 28ko, igandea, 24:00ak arte Santiago gertatutako tren-istripuko biktimengatik. Tarte horretan, Nafarroako bandera haga erdian jarriko da eraikin publiko guztietañ.

Nafarroako Aldizkari Ofizialak buletin berezi bat argitaratu du ostiral honetan Lehendakariaren foru-dekretu horren berri emateko; bertan jasota geratzen da, 80 pertsonaren heriotzak eta ehun bat zaurituk "gizartean eragindako inpaktu emozionala" eta "biktimekiko dolumen eta elkartasuneko sentimendua".

Gogora ekarri behar da Nafarroako Ikurren 24/2003 Foru Legeak, apirilaren 4koa, ezartzen duela Nafarroako bandera haga erdian edo dolu-xingola jarriko dela haren ezkutuan, Nafarroako Gobernuko Lehendakariak dolu ofizialeko eguna agintzen duenean bakarrik, eta agindu horrek erabakitzuen duen epean.